

ESKU-IDAZKIAK

XXII GORAPEN-ABESTIA

²⁹ Bedeinkatua Zeu, errukiaren eta graziaren
Jainko ori,
zure errukiagaitik, zure izate aberatsagaitik,
³⁰ zure egintza guztietan dozuzan ontasun uga-
riakaitik!
Poztu egizu zure doaiaz
zure erreñuko laguntza.

³¹ Garbitu nagizu zure zuzentasunean;
izan be, zeure ontasunean dot ustea,
zeure biozperatasunean dot ustea;
³² zeure parkamenez askatu nenduzun nire miñe-
tatik,
baita adoretu be nire oiñazean,
zeure errukietan sendotzen naz-ta.

XXIII GORAPEN-ABESTIA

³³ Bedeinkatua izan zaitezala, ene Jauna,
gauzok egin dozuzalako
eta zure morroi otoizle onen agoan
³⁴ nire agoak ozta-ozta dirautsun au jarri zen-
dualako:
Zuk bai egin dozula nigaitik!
³⁵ [...] indarra izan dot
³⁶ eta Zuk zure eskuetan [...].

XII sorta

¹ Aundiagotu egizu nire izate guztia [...]
² emoidazu zure etxeko santu danaren ziurtasu-
na.
Baretasuna nire txabolan, salbamenal!
³ Zeure izena goratu dot bildur dautsuenen ar-
tean;
⁴ kantuz eta gorapenez belaunikotuko naz
gizaldiz-gizaldi eten bagarik eskaturik,
⁵ eguzki-sortzaldetik sartzalderaiño, egun oro,
erraldoi argitsuaren igaroteari jarraiturik.
Gaba datorrenean eta argia atzamatzen danean
eta arrezkero illunpeak nagusi izaten asten diranean
—gau-aldia—, otoitzean bakarkatzen naz ni
goiza eldu arte
⁷ eta illunpeak argitan ezereztu
eta euren bizitokira aldendu arte.
Guztientzat eten bagarik
urteten da gaba, sartzten da eguna.
⁸ Aldiaren izarrak
aldiak eta mugatutako epeak negurtzen dabez.
⁹ Arein ezaugarrien [Zeru-gerriaren] negurria
arein eragin guztiaz
Jaungoikoak berak emon dautsen eraz igaroten dira.
Danaren eta izango danaren autorpena egiten dabe.

¹⁰ Ez dabe azkenik. [Jaungoikoaren] esate ori ba-
garik
ez dago ezer be.
Jaungoikoak, dana dakian ezkerok,
¹¹ ezarri eban ori.
Iñor be ez da besterik Aren ondoan.
Nik, ikasle nazan onek, ezagutzen zaitut, ene Jauna,
¹² nigan Zeuk jarri zenduan espirituaren bitartez.
Arretaz entzun nebazan zure ezkutu miragarriak.
Espiritu Santuaren eragiñez,
¹³ zeure jakituriaren misterioaren ezaugerea sa-
kondu zenduan nigan.
Zeure aal-izatearen amaitu-eziñak
¹⁴ agertu dau ori, erruki ugariaren
eta zaletasun garbitzaillearen erara.
¹⁵ Zure aintzaren dirdira argi amaibagea izango
da.
¹⁶ Ez [da izango] geiago dongakeriarik, ez ma-
rrokeriarik
¹⁷ [...] triskantzarik. Izan be, arrezkero ez da
izango [...]
¹⁸ ez ondamendirik. Izan be, zeure aurrean nire
oiñazea.
¹⁹ Iñor be ez da guztiz zuzena zure aurrean.
²⁰ Gizon ikasia zure misterio guztietan
bereala erantzuteko [...]
²¹ zure zorrotzaldian;
zeure ontasuna agertzeko, [...]
²² ezagutuko zaitue,
aldia eltzean, zeure aintzan poztuko dira [...]
[...] erara
eta zeure adimenaren arauz
²³ urreratuko zakiez.
Zeure aal-izatearen erara otseinduko zaitue,
zeure banantzeen arauz,

²⁴ zure berbak inoiz be ausi bagarik.
Niri buruz, [zetarako ardurarik?],
edozela be autsa baiño ez naz-tal,
²⁵ gaiztakeri-iturri, ezeuki utsa,
uraz oraatutako lokatz-pilloa,
²⁶ illunpeen gelea.

Biurtu daitela autsetara buztinezko izakia.
Bai; umea eldu daitenean, autsetara biurtuko da;
²⁷ autsetatik izan zan urtena.

Zer erantzungo dau autsak?,
zelan ulertu aal izango dau?,
²⁸ zelan egin aal izango dau gogor
bera zigortzen dauanaren aurrean?

²⁹ Igo aal izango ete-da goi betikoaren aurrean?,
aintzaren iturri asierabagera,
edozein ezaguerako iturburura berberara?

³⁰ Ezta espirituaren erraldoiak be
ezin azaldu daikee zure aintza.

³¹ Inñok ezin daikeo erantzunik emon zure zigo-
rrari,

Zu zuzena zara-ta. Inñor be ez Zu lakorik!
Izan be, zer da nai ta nai ez autsetara biurtu bear
dana?

³² Isilik geratu naz, zer esan bear dot orretzaz?
Ozta-ozta egin daiket berba ia ezer be ez dakidanaz.

³³ Buztinezko izakia, zelan izan daiteke zuzena?

Eta zer erantzungo dot irakasten ez ba'nozu?,
³⁴ zer esango dot, leenen neure biotzari agertzen
ez ba'dautsazu?

Zelan ibili naiteke ni bidean zuzen.

nire oiñak Zeuk sendotzen ez ba'dozuz?,

³⁵ zelan egon daitekaz sendo nire oiñak,
Zeuk indartzen ez ba'dozuz?,

³⁶ zelan jagi naiteke, Zeuk [jasoten ez ba'nozu?].

GIZAKERA

Nagusiren baten aurrean zagozanean ez zaite jesarri bera baiño lenago. Bera jagiten ba'da, zu be jagi.

Toki estu baten bi izketan dagozanean, ez zaite igaro bien erditik, alde batetik baiño. Tokirik ezpa'lego, baimena eskatu.

Kale-zear ba'zoaz, zu baiño nagusiagoa danari itxi egiozu eskuma; alan be kale-ertzetatik ba'zoaze, itxi barrukoa berari, naizta eskar-aldia izan.

Kale batetik bestera igarota beste kale-ertzea artzen ba'dozue, zuk aren atzetik igarota tokia aldatu ta barru-aldia emon.

Doazenak iru ba'dira, gitxiago diran biek, erdian eroan begie nagusiagoa.